BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillagorbeialdea/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
30144708b0160e135cd07e9232020d01q

Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

GORBEIALDEKO PARKEAREN KUDEAKETA INTEGRALEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUTEN KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS QUE RIGUEN LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE GESTIÓN INTEGRAL DEL PARQUE DE GORBEIALDEA

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TOÑA	Ingurumen teknikaria / Técnico de medio ambiente	14/02/2025 13:57

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillagorbealdea/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
3014470 8b0160e135cd07e9232020d01q

Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

1. KLAUSULA.- INSTALAZIOAK

Parke mikologikoaren titularra den toki-erakundeak ez du esleipendunaren esku inolako lokalik edo espazio fisikorik jartzeko betebeharrik izango, informazio-gune gisa erabiltzeko.

Enpresa esleipendunaren erabakia izango da zerbitzuaren deskribapen-eskaintzan informazio-gune gisa erabiltzeko espazio fisiko bat sartzeko edo ez sartzeko aukera izatea.

Toki-erakundeak enpresa esleipendunarekin lankidetzan jardun ahal izango du eraikin publikoak bilketa-baimenen salmenta-puntu gisa ezartzeko, eta udal-eraikinetan jendeari arreta emateko ezarritako ohiko ordutegiak bere egin beharko ditu.

Esleipendunak bere eskaintzan sartzen badu bilketa-baimenak saltzeko informazioa edo zerbitzua eskaintzeko aukera, berak bakarrik izango du ardura beharrezkoak diren dokumentazioa, informazio-liburuxkak edo bilketa-baimenen txartelak adostutako lekuetan jartzeko, baina horrek ez du erantzukizun gehigarririk ekarriko udal-barrutietako langileentzat.

2. KLAUSULA.- MATERIALAREN BALDINTZAK

Esleipendunak ordainduko ditu beharrezkotzat jotzen dituen eta parkearen titularra den toki-erakundeak jarri ez dituen materialen gastu guztiak.

3. KLAUSULA.- BITARTEKOAK ETA AZPIEGITURAK

Jendeari arreta emateko telefono mugikorra

Enpresa esleipendunaren ardura izango

CLÁUSULA 1.- INSTALACIONES

Las entidades locales titulares del Parque micológico no tendrán la obligación de poner a disposición del adjudicatario ningún local ni espacio físico para su uso como Punto de Información.

Será decisión de la empresa adjudicataria la posibilidad de incluir o no en su oferta de descripción del servicio, un espacio físico para su uso como Punto de Información.

Las entidades locales podrá colaborar con la empresa adjudicataria para establecer los distintos edificios públicos como punto de venta de permisos de recolección, debiendo asumir los horarios habituales de atención al público establecidos en los diferentes edificios municipales.

En el caso de que el adjudicatario incluya en su oferta la posibilidad de ofrecer información o servicio de venta de permisos, será el único responsable de que estén en los lugares acordados la documentación, folletos informativos o boletos de permisos de recolección necesarios, sin que esto suponga una responsabilidad añadida para las personas trabajadoras de los distritos edificios municipales.

CLÁUSULA 2.- CONDICIONES DEL MATERIAL

El adjudicatario correrá con todos los gastos del material que considere necesario y que no haya sido aportado por el Entidad Local titular del Parque.

CLÁUSULA 3.- MEDIOS E INFRAESTRUCTURAS

Teléfono móvil de atención al público

Será responsabilidad de la empresa adjudicataria poner a disposición del

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TOÑA	Ingurumen teknikaria / Técnico de medio ambiente	14/02/2025 13:57

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillagorbeialdea/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
30144708b0160e135cd07e9232020d01q

da Parkeko erabiltzaileei arreta emateko telefono-zenbaki bat jartzea jendearen eskura, eta beharren araberako arreta-ordutegia ezartzea.

Gorbeialdeko Parke Mikologikoaren webgunea eta posta elektronikoa

Kuadrillak Parkeko pertsonen edo erakunde kudeatzailearen eskura jarriko du webgune bat https://www.gorbeiamikologia.eus/ domeinupean, jendearentzako oinarrizko informazioarekin.

Enpresa esleipendunaren ardura izango da webguneko edukiak eguneratzea, bai eta Parke Mikologikoari buruzko informazio interesgarria eta eskain daitezkeen jarduera edo tailer gehigarriak argitaratzea ere.

Kuadrillak info@gorbeiamikologia.eus helbide elektronikoa jarriko du enpresaren esku. Kuadrillaren jabetza izango da helbide hori, baina enpresa esleipendunak kudeatu beharko du.

Ostatatzearen gastua (hosting eta domeinua) Gorbeialdeko Kuadrillak hartuko du bere gain, web orriaren jabe gisa.

Webean argitaratzen diren datu eta eduki propioak edo Parkearekin lotutakoak Gorbeialdeko Kuadrillaren esku edo jabetzan geratuko dira, eta egoki deritzon erabilera emateko eskubidea izango du. Datu eta eduki horiek Kuadrillaren esku geratuko dira, etorkizunean kudeaketaz arduratzen den pertsona edo erakundea aldatzen bada ere.

Enpresak baimenen online salmentaren funtzionaltasuna sartuko du webgunean, eta webgunearen diseinuan egin beharreko aldaketak kudeatu beharko ditu.

público un número de teléfono de atención a las personas usuarias del Parque, estableciendo el horario de atención que se considere acorde a las necesidades.

Página web del Parque Micológico Gorbeialdea más correo electrónico

La Cuadrilla pondrá a disposición de las personas o entidad gestora del Parque una web https://www.gorbeiamikologia.eus/, con información básica para el público.

Será responsabilidad de la empresa adjudicataria la actualización de los contenidos de la web, así como la publicación de información de interés en relación con el Parque Micológico y actividades o talleres adicionales que se puedan ofrecer.

La Cuadrilla pondrá a disposición de la empresa una dirección de correo electrónico info@gorbeiamikologia.eus, que será propiedad exclusiva de la Cuadrilla, pero cuya gestión deberá ser asumida por la empresa adjudicataria.

El gasto del hospedaje (hosting y dominio) será asumido por la Cuadrilla de Gorbeialdea como propietaria de la página web.

Los datos y contenidos propios o relacionados con el Parque que se publiquen en la web quedarán a disposición o en propiedad de la Cuadrilla de Gorbeialdea y tendrá derecho a darles el uso que considere apropiado, quedando los mismos en manos de la Cuadrilla independientemente de que en el futuro se produzca un cambio en la persona/s o entidad que se encarga de la gestión.

La empresa incluirá la funcionalidad en la web de la venta online de permisos, debiendo gestionar las modificaciones necesarias en el diseño de la web.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TOÑA	Ingurumen teknikaria / Técnico de medio ambiente	14/02/2025 13:57

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillagorbeialdea/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
3014470 8b0160e135cd07e9232020d01q

Gorbeialdeko Kuadrillak kontratatuko du ST birtuala online saltzeko eta baimenak kobratzeko.

La contratación de la TPV virtual para la venta online y cobro de permisos irá a cargo de la Cuadrilla de Gorbeialdea.

Sare sozialen profilen kudeaketa

Kuadrillak enpresa esleipendunaren eskura jarriko ditu Gorbeialdeko Parke Mikologikorako sortutako sare sozialen profil esklusiboak, zerbitzua emateko epean.

Gestión de perfiles de redes sociales

La Cuadrilla pondrá a disposición de la empresa adjudicataria los perfiles exclusivos de redes sociales creados para el Parque Micológico de Gorbeialdea durante el plazo de prestación del servicio.

Enpresaren ardura izango da sare sozialen profilen bidez informazioa zabaltzea, eta Parkearen jarduerarekin eta/edo lotutako beste jarduera batzuekin eta mikologiarekin zerikusia duten gai interesgarriekin lotura duten edukia soilik argitaratu beharko du.

Será responsabilidad de la empresa la difusión de contenido a información a través de los perfiles de las distintas redes sociales, debiendo publicar exclusivamente contenido relacionado con la actividad del Parque y/o otras actividades relacionadas y cuestiones de interés relacionadas con la micología.

Sare sozialen profilen bidez argitaratutako informazioa Kuadrillari jakinarazi beharko zaio.

La información publicada a través de los perfiles de las redes sociales deberá ser puesta en conocimiento de la Cuadrilla.

4. KLAUSULA.- ZERBITZU, TAILER, IKASTARO ETA/EDO JARDUERA GEHIGARRIEN BALDINTZAK

Arreta-zerbitzua, bai informazio-gunean (halakorik balego), bai telefono bidez, elebiduna izango da (euskaraz eta gaztelaniaz); horretarako, kudeaketa-taldeko pertsona batek euskarazko B2 titulazioa izango du. Egiaztapen-titulurik ez badu, Kuadrillak maila-proba bat egin ahal izango du Kuadrillako euskara-zerbitzuaren bitartez.

Parkeari buruzko idatzizko informazio guztia elebiduna izan beharko da (euskaraz eta gaztelaniaz), eta lehentasuna emango zaio euskararen presentziari, bai paperezko komunikazioetan, bai web orriaren edo sare sozialen bidez, euskara-zerbitzuak horretarako ezarritako irizpideei jarraituz.

CLÁUSULA 4.- CONDICIONES DE LOS SERVICIOS, TALLERES, CURSOS Y/O ACTIVIDADES ADICIONALES

El servicio de atención, tanto en el punto de información (si existiera) como la atención telefónica será bilingüe (euskara y castellano), para lo cual una persona del equipo de gestión tendrá titulación B2 en euskera. En caso de contar con el título acreditativa, desde la Cuadrilla se podrá realizar una prueba de nivel a través del servicio de euskera de la propia Cuadrilla.

Toda la información escrita relativa al Parque deberá ser en bilingüe (euskera y castellano), dando prioridad a la presencia del euskera, tanto en las comunicaciones en papel como por medio de la web o redes sociales, siguiendo los criterios establecidos para ello por el servicio de euskara.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TOÑA	Ingurumen teknikaria / Técnico de medio ambiente	14/02/2025 13:57

BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillagorbealdea/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
30144708b0160e135cd07e9232020d01q

Enpresa esleipenduna izango da arduraduna, eta, antolatzaile gisa, haren mende egongo dira zuzenean erabiltzaileei eskaintzen zaizkien jarduera edo zerbitzu guztiak. Horretarako, enpresak komenigarritzat jotzen dituen eta Parke Mikologikoaren xedearekin bat datozen jarduera guztiak diseinatu, sustatu, iragarri, antolatu eta zuzenduko ditu.

Enpresak urte bakoitzeko apirilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko du ikasturte bakoitzerako jarduera-programa.

5. KLAUSULA.- PARKEAREN FUNTZIONAMENDUA

Enpresak honako lan hauek egin beharko ditu, lan-bloke hauetan sailkatuta:

1. multzoa: JENDEARENTZAKO ARRETA ETA BAIMENEN SALMENTA KUDEATZEA:

- Erabiltzaileentzako eta bisitarientzako arreta informazio-gunean (aukerakoa, enpresak arreta-gune fisiko bat eskaintzen badu).
- Bilketa-baimenen salmenta egitea eta kudeatzea, mota guztietan.
- Urteko datuak prestatzea eta konfiguratzea baimenak online saltzeko eta baimenak helbideratzeko.

2. multzoa: AHOLKULARITZA MIKOLOGIKOKO ZERBITZUA:

- Telefonoz eta posta elektronikoz egindako kontsultak kudeatzea eta erantzutea.
- Aholkularitza mikologikoko zerbitzua.
- Mikologiari buruzko edukia sortzea, web-orrian edo sare sozialetan argitaratzeko.

La empresa adjudicataria será la responsable y como organizadora dependerán de ella directamente todas las actividades o servicios que se ofrezcan a las personas usuarias. A estos efectos, la empresa diseñará, promocionará, publicitará, organizará y dirigirá todas las actividades que tenga por convenientes y que sean acordes y coherentes con el fin del Parque Micológico.

La empresa deberá presentar antes del 15 de abril de cada año el Programa de Actividades para cada curso.

CLÁUSULA 5.- FUNCIONAMIENTO DEL PARQUE

Las labores a realizar por parte de la empresa son las siguientes, clasificadas en los siguientes bloques de trabajo:

Bloque 1: ATENCIÓN AL PÚBLICO Y GESTIÓN DE LA VENTA DE PERMISOS:

- Atención a personas usuarias y visitantes en el Punto de Información (opcional, en caso de que la empresa oferta un punto físico de atención).
- Expedición y gestión de la venta de permisos de recolección, en sus diversos tipos.
- Preparar y configurar datos anuales para la venta online de permisos y domiciliación de los permisos.

Bloque 2: SERVICIO DE CONSULTORÍA MICOLÓGICA:

- Gestión y respuesta de consultas telefónicas y a través del correo electrónico.
- Servicio de consultoría micológica.
- Creación de contenido sobre micología para su publicación en la página web o RRSS.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TOÑA	Ingurumen teknikaria / Técnico de medio ambiente	14/02/2025 13:57

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillagorbeialdea/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
30144708b0160e135cd07e9232020d01q

3. multzoa: AHOLKULARITZA ETA EREMUKO ZAINTZA-LANA:

- Aholkularitza, eremuan bertan.

Esleipendunak behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko dizkio kuadrillari ohiko zaintza beharrizan puntualak, horrek alderdi hori AFAko Miñoien zerbitzuarekin edo dagokion erakundearekin koordinatu dezan.

4. multzoa: KONTRATUAREN XEDEAREKIN LOTUTAKO JARDUERA GEHIGARRIAK GARATZEA:

- Mikologiaren inguruko dinamizazio-jarduerak garatzea: bisita gidatuak, tailerrak, merkatuak, erakusketak, etab.

5. multzoa: TXOSTEN MIKOLOGIKOAK ETA BALIABIDE MIKOLOGIKOEN URTEKO EBALUAZIOAK:

- Txosten mikologikoak egitea eta produkzio mikologikoaren jarraipena egitea.
- Zerbitzua emateari buruzko urteko txostena edo memoria egitea. Txosten edo memoria horren edukia aldez aurretik adostu beharko da Kuadrillako kontratuaz arduratzen diren langileekin.

6. multzoa: BESTE FUNTZIO GEHIGARRI BATZUK:

- Enpresak eskain ditzakeen beste zeregin, eginkizun edo zerbitzu batzuk.

Jendeari arreta emateko ordutegia eta modua:

Enpresak bere Kudeaketa Planean jaso beharreko ordutegia eta jendeari arreta emateko modua zehaztu beharko ditu bere eskaintzan.

Bloque 3: ASESORAMIENTO Y GUARDERÍO EN CAMPO:

- Asesoramiento en campo.

La adjudicataria notificará con la debida antelación a la cuadrilla las necesidades puntuales y habituales de guardería, con la finalidad de que ésta coordine este aspecto con el servicio de Miñones de la DFA o con la entidad correspondiente.

Bloque 4: DESARROLLO DE ACTIVIDADES ADICIONALES RELACIONADAS CON EL OBJETO DEL CONTRATO:

- Desarrollo de actividades de dinamización en torno a la micología: visitas guiadas, talleres, mercados, exposiciones, etc.

Bloque 5: PARTES MICOLÓGICOS Y EVALUACIONES ANUALES DEL RECURSO MICOLÓGICO EN EL PARQUE:

- Elaboración de partes micológicos y seguimiento de la producción micológica.
- Elaboración de un informe o memoria anual de prestación del servicio, cuyo contenido deberá ser previamente consensuado con el personal responsable de contrato por parte de la Cuadrilla.

Bloque 6: OTRAS FUNCIONES ADICIONALES:

- Otras labores, funciones o servicios que se pudieran ofertar por parte de la empresa.

Horario y forma de atención al público:

La empresa deberá especificar en su oferta el horario y forma de atención al

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TOÑA	Ingurumen teknikaria / Técnico de medio ambiente	14/02/2025 13:57

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: https://udalenegoitza.araba.eus/cuadrillagorbealdea/validacionDoc/?entidad=ZUIA_CU
3014470 8b0160e135cd07e9232020d01q

Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

Ordutegia eta funtzionamendu-egutegia aldatu ahal izango dira, bi aldeak ados jarrita.

público que considere, que deberá contemplarse en su Plan de Gestión.

Tanto el horario como el calendario de funcionamiento podrán ser modificados mediante acuerdo entre ambas partes.

6. KLAUSULA.- PARKERA SARTZEA

Parkerako sarbidea librea izango da herritarrentzat, eta muga bakarra izango da bilketa egiteko ezarritako prezioak ordaintzea.

CLÁUSULA 6.- ACCESO AL PARQUE

El acceso al Parque será libre para la población sin más limitaciones que el pago de los precios estipulados en caso de recolección.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TOÑA	Ingurumen teknikaria / Técnico de medio ambiente	14/02/2025 13:57